Hemen gauak lau ertz ditu

Mikel Ibarguren

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1996 Mikel Ibarguren
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1996ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Hitzaurrea

Literaturako pasarte gogoangarri asko eta asko giltzapean idatzi izan dira. Euskal literaturan ere, ahozkoan nola idatzian, ugaria eta oparoa da espetxean sortutakoaren emaitza. Zenbait testu, bestalde, on egin ditu gure begietara jazarpen mota ezberdinen itzalean idatzi izanak. Ezin uka daiteke, halaber, jazarpena ongarri eraginkorra gertatu ohi dela literaturarentzat. Zail gertatzen zaigu, inolaz ere literatura eta bizitza bereizten, hunkiberatasunak hartzen gaitu drama humanoen aurrean. Hala ere, poesiak ez luke sofrimenduak ezar lezakeen balizko balio erantsiaren beharrik, poesia denean. Izan ere, giza esperientzia orokorrari egiten dio bere ekarpena poesigintzak. Sentitzeak, berez, ez du edertasunarekin zerikusirik, artea adierazkortasunaren kateari lotua dator. Poesia liburu bat aurkezten ari garenez, esan gabe doa, Mikel Ibargurenen lirikotasun kementsuak ere adierazteko ahalmen hori du tasunik nagusiena. Eta garbi dago inolako onurarik ez dakarrela kartzelak, aldiz, idazlearen gatibutzak trabatu baino ez du egiten libu-

ru baten tajutze lana, buru-neke handirik gabe susma daitezkeen arrazoi teknikoak tarteko.

Ibargureni mundu afektiboarekiko sortu zaion distantzia gainditzeko saioa jo liteke *Hemen gauak lau ertz ditu*. Deserrotze bat eta ondorengo bilatzeak, berreskuratze ahalegin sakonak mamituko du liburua. Bakardadea ukigarria da, maitearen falta bezala, denbora badoala eta gu joale huts garelako sentsazioa bezala. Hor askatasun ariketa moduan ageri da literatura, etsiari aurpegi emateko itxaropen bulkada bezala. Eta behin behineko askatasun horrek maitearen gorputza eta haurtzaroko paisaiak gogora ekartzea ditu baliabideak, eta *geroa oroitzea*. Oroimena bidelagun biziarazlea da poetarentzat, aditzak orainean jokatuta daude erabat. Maitasuna da gaia, gabeziaren sakonera humanoenetik idatzitako maitasun poemak dira, egotzia izan denak itzultzearren ibilitako erromesaldi minbera. Gatibutza bera poesia honen eskenatokia eta argudioa da, ez besterik.

Liburuan aurrera egin ahala aldaketa, garapena somatuko du irakurleak. Idazkera, hau da, sintaxia eta irudiak, apala da aurreneko ataletan, xalo samarra batzuetan, *erraza*. Hasi eta buka konstanteak mantendu egingo dira hala ere, maite den oro urrun

dago, geroa berandutu egiten da, denbora tarte handiegia sortzen da poema esan eta hartzaileak entzun bitartean. Baina azkenera hurbiltzen garen neurrian lirikotasuna trinkotu egiten da hizkerarekin batera. Hasieran arin eta freskoa zena mardula da orain, poemak luzeagoak dira, lirikotasuna diskurtsiboagoa, epikoagoa nolabait. Ematen du garapen modu bat erdietsi duela Ibargurenek distantziaren aurkako lehian, gertuagotik ari zaigu hizketan eta bere ahotsa gero eta gero ñabardura handiagoz heltzen zaigu. Poetaren hitzek hura gatibu daukaten hormen gainetik egin dute behingoan. Literatura ez baita hori besterik hein handi batean, askatasuna, behin behineko askatasuna.

Iñigo Aranbarri
Jose Luis Otamendi

Kontxiri, han

LAU ERTZ GAUKO

Bizitza honek lau ertz ditu
Lau ertz ditu ene pentsamenduak ere
Eta denboraren diktadurak
Geroaren aldabak apurtu dituelarik
Zure ametsaren sabelean bizi nahi nuke
Gaulehenaren abaraska batean bezala
Astunak dira hitzezko katebegiok
Eta ene hatz joriak oihu egiten dizu
—Ez da izanen oldar gehiagorik—
Min du ene garrasi geunak
Eta egunsenti urratu berriak
Gau iluna zauritu du
Leiho-burdina herdoilduek
Ene sentimenduak atzamarkatu dituzte

Eta jada ez gara atzo bezalakoak

LAU ERTZ ARROTZ

Zer eskain dezaket nik
Oroitzapen baten malura ez bada
Etorkizuna idazteko ere
Gauza ez naizela
Esaidazue zer eskain dezakedan
Desira gatzatu bat ez bada
Egunen batean joanen banintz
Ez nintzateke itzuliko izenez aldatuta
Esaidazue arren
Oroitzapenak zibilizazio galdu baino ez badira
Eta nire eta munduaren artean
Giza-has denean ene itzala

Jakin baneki
Ez nintzateke zuengana hurbilduko
Baina bakardade honetan
Zer da ene bihotza
Ardagai ezin sikatua baino
Eta hurbilean nahi zaituztet
Bide zaharrok
Hurbilean nahi zaituztet
Eraman nazazuen hemendik
Gauaz beste aldera
Bidea ibiliz egiten dela erraz da esaten
Baina hemen bideak idatziz egiten dira
Hemen ez dago eta libertaterik
Libertatea idatzi egiten da

Neure gogoetetan erbesteraturik
Ideia lausotuak dakartza haizeak
Orainak bakarrik existitzen du
Eta zeruan oihartzuna hedatu da
Lorratz anonimoetan gogoa haragitu zaidanean
Gauaren oroimenera itzuli nahi dut
Bertan har dezadan atseden
Eta inork non dagoen ez dakien
Inoren lurra da oroimena

Gaur beti bezala
Ene pena betikoak zer kolore ote duen
Galdetuko diot neure buruari
Eta haurrak eskola bidean izanen dira dagoeneko
Euren karpetak geografia eta historia zailez beterik
Eta nik ere eskolara joan nahi dut
Andereño batekin maitemintzeko
Irratitik aurrez egindako albisteak emanen dituzte
Eta su-etenak behin eta berriz hautsiko dira
Haurrek margotu itxaropena zulatuz
Gaur beti bezala
Hamaika arrazoi nituzke karrikara jaitsi
Eta hitz ederreko graffitiak margotzeko
Meteorologoek iragarri egun on horretan ez
sinesteko
Errebolberrez poema blindatu bat zartatzeko
Izan ere gaur beti bezala
Akuarelazkoak baitirudite karrikek euripean
Eta beti bezala hegazkinek zerua ehunduko dute
Eta agudo deseginen diren hari zuriak utziko dituzte

Kosmologoek unibertsoa etengabe hedatzen doala diote

Baina hemen unibertsoa

Zapata-kaxa baten barruan kabitzen da

Olaturik gabeko lurralde batean naiz
Zugandik aparte
Hemen ez dago mendirik, ez errepiderik, ez gasolindegirik
Lurralde enkoadernatu honetan
Ez dago etxerik, ez kale-kantoirik, ez ostaturik
Ez eta mundurik ere
Mundua beste aldean hasten baita beti
Ez da maitaleen musurik ikusten
Basoen hasperen gorderik sentitzen
Hemen ez dago arnasarik, zilbor hesterik
Lurralde arrotz honetan ez dago herririk
Ez da autorik ikusten ez da esne-saltzailerik
Askatasuna ditare baten barruan kabitzen da
Eta oroitzapenak poltsikoan daramatzagu
Txikitan kanikak bezala
Izarrek han urrunean ipurtargiak diruditela
Lurralde laiotz honetan
Egon ez dago ezer eztirik
Esperantza da hemen inoizka itsasten den lore bakarra
Horregatik oroitu beharra

Iluntze urdina zatika erortzen ari den honetan
Distantziak bere gordina erakusten du
Eta ez dago zerurik
Bala batek zulatutako isiltasuna baizik
Nire oihua harrizko gauaren kontra lehertu da
Ez dakit noiz hasten den biharra
Ez dakit non amaitzen den iragana
Eta ezpainetan hutsunea marraztu da
Irri baten oroiaren lekuan
Ez zaitut kausitzen
Eta harzara begiratzen dudan bakoitzean
Behiala izan nintzena bilatzen dut
Zerbait ahantziko nuen
Eta ez dago zerurik
Beltzagoa da beti gaua

Esperantzaren isiltasunean
Hitzak amarauntzen ditu gauak eta egunak
Hitzak hurbilarazten gaitu biharko gaurrera
Hitzak irekitzen zirrikitua mundurantz
Eta orain
Isiltasunaren hormak arraildu direlarik
Jaberik gabeko sastagai goroldioztatua da ene hitza
Ostertz betikoan
Hitza dut lagun, aurpegi ezagun bakar
Eta esperantzak egiten du gizakia
Orain gorputza baino ez dut eskatzen
Gorputz bat nire egiarentzat

Bakarrik nago
Eta bakardadearen hezea dut eguneroko bezero
Nire oihuminak gaur
Ez dauka giza aurpegirik
Eta berandu da
Minbera dira ahapaldiok
Goiz dardarti honetan
Harresitzarrek zeruaren ahosabaia atzamarkatzen dute
Eta nonbaitetik datozen haur hotsek
Gizatiartzen dute nire nahi eta ezina
Denborak harria zizelkatzen duelarik
Ene ahots deserriratua mintzo da

Ostertzean

Gauak oihartzunaren itxura hartu du
Eta memoria sortu aurretiko
Hutsunerik gordetzen da nonbaiten
Berandutzen ari da geroa
Eta zain nago
Ene pentsamenduak nork hartuko
Nire hark du hitz egiten
Beste nonbaitetik ari natzaizue
Sortzear dagoen beste lur batetik
Alferrik zabiltzate
Ez nauzue aurkituko
Mundua nire ziega barrura sartu da

Lanbro urratuak memoriaren hemerotekan
Neure baitan bidazti noa
Xederik gabe
Itsasoaren iragan luzeak
Hondarrean laga oroitzapenak ezabatu ditu
Eta urtekari zaharkituetan ez da
Bozkariorik ageri
Behazun mingarra ez bada
Zestoako karriketan da ene haurtzaroa
Eta gutunbako gauaroa hurbiltzean leiho ondora
Norbait bertaratzen zaidala sentitzen dut
Nortasun agiririk gabeko bakardade honetan

Imajina ezazu
Argia itzali dutela eta hondartza galdu batean
zaudela
Arratsaren ertzean baga kalakariekin jolasten
Leiho-burdinarik gabeko gau librean
Ilargia itzal baten gainera datorrela
Imajina ezazu imajina
Adokin bustietan zure gorputzaren bila noala jolasti
Eskuak poltsikoetan sartuta
Eta gauean ene musu isilenak zure sabelean
gorderik
Egilerik ezagutzen ez dugun abestia tartekatzen
zaigula
Imajina ezazu imajina
Egunabarrean gure begiradek elkar aurkitzen dutela
Edo txolarreen aberrian erbesteraturik zaudela
Edo leihotik ikusten duzun zeru karratua arbel
bilakatu dela
Eta hegazkinek marra ulergaitzak idazten dituztela
Imajina ezazu baina sarraila hotsa
Kartzelariak beste egun bat
Giltzatu duela adierazten dator

Jendarmak aurretik Jendarmak atzetik
Sirena hotsak Oinezko anonimoak espaloietan
Zure irudia pentsamenduan Sirena argiak etxeetan irristaka
Platano ilarak espaloietan itotzen
Les bouquinistes Notre-Dame
Estatuak hiriaren zaindari mutu Oinezkoak furgonetari begira
Denek ni begiratzen nautela sentitzen dut
Eskaparateetako argiak klik-klak klik-klak keinuka
Manikiak ere niri begira Oinezkoak harantz-honantz
Zure begiak sentitu nahian
Kafetegi eta espaloietan sirena hotsak karrika kantoietan
Sirena hotsak Le Pont Neuf
Pont des Arts harantzago Seine suiziden ibaia
«Wyatt Earp» zinema kartelak Palais de Justice
Egunen batean espaloiak oinez zeharkatu eta
Sirena hotsak entzunen ditut neuk ere
Furgoneta bat ikusiko dut nire ondotik igarotzen
Eta oinezko anonimo bati bezala begiratuko diot
Eta neure burua ikusiko dut han barrua

Hemen gauak lau ertz ditu
Harrizkoak dira eleak alanbrezkoak etorkizunak
Eta maitasunak gutun baten forma hartzen du
Gizakia bere itzalaren bila doan
Leiho burdinarik gabea da
Hemen askatasuna
Ditare baten barruan kabitzen da
Esperantza urrunean erdikusten den
Bandera arrotza da
Eta meteorologoek iragartzen duten
Eguraldi on hori ez da hona iristen

Goiza zuriz estali da
Zuriz estali dira begiak, idazteko gogoak
Zuriz dira oroitzapen galduak
Begirada hautsiak, ausentzia ororen itzalak
Eta izenik gabe aurkitzen da oro elurpean
Goiza zuriz estali da
Zuriz estali dira iraganaren orbainak
Maitaleen hasperen itzaliak
Zuriz dira herriminak, bihotz urratuak
Kriseilu zaharkituen argi kartzelatuak
Eta ene orri zuriotan zure bila nabil

Euri tanta zuribeltzak
Goiz zuribeltz mutuetan
Urmael hustuak dira presoen begi ahantzi eta idorrak
Eta hareazko oroitzapen aleak
Ahanzturaren galbahean iragaziz doaz
Izan gabe gara
Zapatua da eta bisitarik ez
Mundua begien aurretik joan da
Ez dakit nora
Pentsamenduaren hormetan izkiriatzen dut gaur
Itogin zahar batek habia egin du nire bihotzean

Arrastiria orri hautsia denean
Hosto ihartuak dira
Isiltasun honen lekuko bakarrak
Nire gorputz ardaituan
Zure lorratzak aurkitu ditut
Eta desira erantzietan
Ahots biluzia da nire gogoa

Aberria norberak bere baitan
Daraman lur zatia baino ez da
Baina nire aberria
Irriño baten barruan kabitzen da
Oroitzapenez osaturiko aberria da nirea
Zurea eta nirea
Izenik gabeko adio isil bat askotan
Beti arte, ez dakit noiz arte bat
Baina arte bat
Horrelakoxea da nire gurazko aberria
Hutsa eta jendetsua
Boz minartua
Hurbil eta urruna
Bestelakotua
Ñimiñoa
Poema baten barruan kabitzen den
Aberria da nirea

LAU ERTZ HANGO

Dena dago oso hurbil
Eta dena dago oso urrun
Ene bihotzak ez du biztanlerik gabeko
Hiri huts
Umerik gabeko parke bat izan nahi
Alanbrezko ostertzari begira
Nire esku mutuek
Zure izena ahoskatzen dute
Euriak gauaren hutsa bustitzen du
Eta nire begietan ez dago inor

Umezurtz daude ene eskuak
Maiatz hautsi honetan
Eta oldozpenak lanbro urdinetan
Etorkizunaren magalaren bila
Hondora doazen baporetzarrak dira
Zure titiburuak ahoratu nitueneko oroiak
Klandestinoki ostentzen ditut
Gogoaren soto gordeetan
Eta gauaren ertzetik datorren eguantzak
Ez dakar inor
Ezta zure gutun bakar bat bera ere
Eta gela huts bat sentitzen dut ene baitan

Begiak ireki gabe
Egunak zuribeltzean irudikatzen ditut
Eta ene gogo antzigartuan
Mila bider asmatzen zaitut
Eta beste mila bider ezabatzen
Malko zaurituen haragi bizitan
Sentimendu biluzien bila
Instant galdu baten bila abiatzen naiz
Eta geroak oroituz
Iraganaren uharak lotzen nau
Irri ezezagunak ferekatzen

Bihar ere beste egun bat izanen da
Beste haurtzaro bat, beste helduaro bat

Bihar ere askatasuna poltsikoan gordetako
Orri tolestatua izanen da

Eta euriteek oroitzapenak basituko dizkigute
Malkoek denboraren izantza

Bihar ere nonbaiten beste sanjoan-lore bat lehertuko
da
Gau-lore bat zure bihotzean

Etorkizuna zakarrontzira botatako orri zirriborratua
izanen da

Bihar ere egunona sarraila hotsen ikara hotsa
izanen da

Egunsentiak bere leihoak zabalduko ditu
Eta burdinak dituen goiza agertuko da

Bihar ere iragana helduko da
Eta handiagoa izanen da
Nire baitan hazten ari den leizea

Itsasbeherak berarekin eraman du gaua
Eta zure bozaren bila nabil
Maskor galdu bat balitz bezala
Plaza eta kale guztietan barrena ibili naiz
Egunak joan egunak etorri
Ene deiadarrak mendeak eta mendeak zeharkatu ditu
Eta deika ari natzaizu
Antzinatik datorkidan dei honekin
Oihu zuria gesaltzen ari den arren
Zer egun den axolarik ere ez dion
Egun izengabe honetan
Eskaileretan jesarrita naukazu
Poesia hau aldaba baita:
Zure atean jotzen dut behin eta berriz
Baina ez du inork irekitzen

Itsasbeherak gaua eraman du berarekin
Eta hondar bustian ez da zure izenik

Bihar bata bestearen enkontrura abiatuko gara
Aurrez aurre itzaliko ditugu begiak
Lurralde habitagarriago bat bilatu nahian
Gela zikin eta hango honetan
Ezpain biluzietan inprimatuko ditugu
Maitasunezko hitzak
Eta joan eginen gara desirekin
Galduta zebiltzan olatuak herrira heltzen bezala

Biharra gero da

Zure hutsunearen gesalak
Ene begi herdoilduak
Ihinztatzen ditu
Gauaren leize ilunetik
Itzultzen naizenean
Goizaren gazuretan bustirik
Irudikatzen ditut zure ezpain hezeak
Maskor galduetan da ene bihotza
Eta iluntze urdinetan
Ezkutatzen dira
Erlieberik gabeko lorratz biluziak
Eta ametsen
Xendra gordeetatik ortozik datoz
Olatuak nire hondartzarantz
Baina zu
Inoiz heltzen ez den olatu hori zara

Lehendabizi zure begiak ahoa
lepoa gingila adatsa
Sorbaldak bizkarra bularrak
gero besapea sabela sexua arrosa
Zila ipurdia aldakak ezpainak
Zestoa zangoak oinak behatzak
Oin azpiak titiburuak
eta sorbaldak ahoa bularrak
Zure begiak bizkarra Kemper
Ipurdia oinak ezpainak
Lepoa zila behatzak titiburuak
zangoak sexua arrosa sabela
Adatsa aldakak Fresnes besapeak
Eta azkenik esku biluzi bat
Zure izateko era laztantzen

Zure berbotsik bage
Handiegi zait bakardadearen arroa
Handi zait isiltasuna
Mende gorolldituek
Estali dituzte bart arratseko solasak
Ateri dago eta
Neurtitzok dira gelditzen zaidan guztia
Orain ez gaude bata bestearen ondoan
Esaera zaharra da maitazarrea
Behin eta berriz mundura sortu nahi hau
Olatuek ez dakarte zure testigantzarik
Ez zure mintzurarik
Berantetsita nago
Pauso zaharrak urratu zaizkit
Zatoz eta gorde nazazu
Gaur begirada mutu hori
Etxe ederra litzateke niretzat

Ispilurik gabe dihardut nire aurpegiaren bila
Neguaren katilu hotzean
Kanpoan elur malutak etengabean pilatzen doaz
Ezpainik gabeko musuen antzera
Postalik gabe dator gaurko gaua
Helbiderik gabeko kartazal hutsa dirudi
Eta argia itzaltzen dudanean
Ene ziega gau bilakatzen da
Eta bizitza isiltzera doala dirudienean
Nire gorputzak ez du zurean gordelekurik bilatzen
Eta zure gorputzaren ausentzia besarkatzen dut

Goizean patioko putzu isiletan elkartzen dira usoak
Izenik gabeko egun grisetan
Eta kale bustietako putzuetan irudikatzen ditut
Zure oinetako beltzak bustirik
Iragan galduetako aldirietan arrotz
Baina gaur izenik gabe agertu dira hezurrezko
zuhaitz bustiak
Izenik gabe isurtzen dira estratetako erosta-zotinak
Eta begi tristeak dituzte usoek
Izenik gabe dira zure ferekak ene gorputzean
Eta ezabatuz doaz
Izenik gabe datoz oroitzapenak nonbaitetik
Gabon gaua da arkatzik gabe gelditu den
presoarentzat
Gabon gaua gutunik gabeko postontzietan
Eta kartoizko kaxa bustiak dirudite etxe bustiek
euripean

Iluntzea da
Eta noaski ez litzateke
Horrela izanen
Zure begiak nireetan etzanda baleude
Agian ez nintzateke
Zazpi metro karratuotan herrari ibiliko
Eta nik paretan egin seinaleak
Ez lirateke etorriko direnentzat geratuko
Uhalde osteko hondarrak bailiren
Guda ondoko gezi hautsiak legez
Ez nintzateke noaski
Haur baten gisa ibiliko
Hormatzar gainera igo nahian
Zure begirada uki ahal baneza

Goait naukazu
Eta zure amodio goroldiotua gordetzen dut
Ene barne gogaieran
Herrialde zahar bat bezala

Sar nazazu zeure pentsamenduan
Eta utzidazu zugan ostatu hartzen
Zure etxe hutsa habitatzen
Eraman nazazu zeure barnera
Eta bila nazazu zeure baitan
Zatoz, zatoz eta eraman nazazu
Hitz minduak urtzen diren lekura
Amodioak sinatzen diren ezpainetara
Leiho ondoan naukazu
Morroiloek ene auhena hertsi dutenean
Ez zait ezer gelditzen ukamena ez bada
Eta gauak eskutik ihes egin dit
Eldarnioka ihes
Eta zure izena lau ertz dituen gela isila da

Alde guztietan egon nahi hau
Eta ezin

Atzo aspaldi da dagoeneko
Eta zure begi tristeetan
Huntzak denbora estali du

Itsasoak
Ez dakar zure mezurik
Eta hitzak sobera daude

Arrats neguan
Ene esku irekiak dei egiten dizu

Egunen batean
Gure bideak elkartzen direnean
Ez dizut ezer esanen
Isildu eginen naiz

Ezpainek badakite zer den gauzen hasiera
Itzuliko naiz
Oraindik ahoskatu gabeko egunetara
Noizik gabeko gauetara

Egunen batean
Kalean gurutzatzen garenean
Zure begietan aterpetuko naiz
Ez dut adio hitza gehiago ezpainetaratuko
Egunen batean

Oraingoz ordea
Gu elkarren oroimenean bakarrik bizi gara

Zure eta nire artean
Beti gau hau hatzetan katigatua
Amaraun iluna bailitzan
Noiz arte

Aurki zaitzaket begiak itxirik
Hitz tarteetan ezkutatuz
Gure kale-kantoi haietan bezala

Maitaleen gorputz hautsiek min dute
Ez dago ezer haien begietako haitzuloetan
Bihotz tirokatuetan
Gerrak irabazi du
Oihumin bat da gaua urratu duen zantzu bakarra
Noiz arte

Ez dut ezer esateko gogorik
Hobe isildu
Eskua gau-lore bat bezala itxi zait
Gauak ene soa ezabatu du

Zutaz oroitzen naiz hotsik egin gabe

Ene ahosabaian galtzen ikus dezakezu
zure ausentziaren isila
Denboraren hilabete hustuetan galduz doaz urratsak
Elesta-hots galduen antzora doaz denboraren
hilabeteetan
Berritu nitzake zure ahoko abesti eta musu
deklinatuak
Zure ezpainetan irri izan nahi nuke
zure behakoaren kaiertz
Ez gaituzte aurkituko pasealekuetan
Ez ginen maitale izateko jaio elkar maitatzeko baizik
Oroimen minduak herrenka doaz egoitza bila
Antzinako begiok ez daukate adinik ez kale kantoirik
Gaua amaitzen den lekuan hasten da beti zerbait
auskalo bat
Eta ezpainek dakite zer den adio baten azken hatsa
Orbel galduak dira zure begi aienatuak
Atez ate galde eginen dut
Bihotzean gordeko ditut abenduko ilintiak
Ez dut idatziko hagiografiarik

Eta maita zaitzakedan arte poesiaren lurrotan
erbesteratuko naiz
Urrun zaude eta hitzez hitz zure oroitzapena
harilkatzen dihardut
Urrun zaude eta elezahar galdu bat da zure ahotsa

Bihoztoi naiz
Bakardadearen elasturiak sortutako lekuetan
Goiztiri lanbrotsuek irakur ezin daitezkeen
Paper hezeak dirudite
Ortozik doa nire auhena
Nik ez dut hilburukorik utziko
Ez daukadana da daukadan guztia
Gaur bezalako egun batean galdu nuen sorterria
Eta harrezkero
Lur zati bat daramat bihotzaren zuloan

Gau honen mugarria non dagoen
Galdetu nahi dut
Ene desnekearen lurretena harantzago ez dadin joan
Zure begietako ur ertzetan maita zaitzaket
Desgaraian lerrotu bihotzean gorde berbaroak
Bilduma guztiak irakurri loreak biluztu
Zure betseinak lurmendu aitzin
Betilun dira helbidebako erbeste haiek
Zenbat lekoatara zauden ez dakidan arren
Badakit zein zaren
Inoiz zure irrien argimutil izan nintzaizun
Oraingo zure ametsen urmael itsas-habuin
Jada ez naiz letargia kiribildu baten argizaiola baino
Egunen batean uhinek nire oihuminaren zatiak
Hondarreratuko dituzte
Txoil zure egin arte

Lurkara da ene mina

LAU ERTZEN HARAINDI

Zure adioa eurite osteko isiltzearena bezala da
Sarraila hotsek ene herrimina zauritu nahi lukete
Gautze horien beste aldean leihorik gabeko
goizalbak bistaratzen dira
Eta ene hatz lehengoratuek ezpainetan bilatu nahi
zaituzte
Baina ez dute ausentzia baino aurkitzen
Ez da bizilagunik gure begietan ez bizilekurik
begiradetan
Zaharminez jota dator haizearen uhuria
Hizpide zintzaizkidake erasan honek minduko ez
banindu
Azalmintzaren memoria exiliatuan bizi gara inoiz
isilez legez
Alferrik gabiltza ezeztatzen garenak gara
Hizkera galduak berreskura ditzaket
Eta doan saltzen ditut haratuztebako ahapaldiok
Lehenago ezagutu behar zintuzket maitasuna
goizago ahoskatzeko
Kale-kantoietan gorde genitzake hasbehera guztiak
Zure bularrak hazten diren eleberrietara irits
ninteke

Baina garenak gara gogora ezazu
Eta sentipenak hurrenez hurren doaz
Euren patua zein den jakin gabe
Gure nahikaria eskuizkribuetan idatzia dago
Geurtz aurkituko ez zaitudan arren
Zure izena gordetzen dut ene ezpain gautuetan

Ahoz ahoz datoz olatuak nire oldozmen oinustuetara

Patioari bueltak eman dizkiodan heinean
Zutaz oroitzen naiz
Ez dakit zergatik kontatzen dizudan
Ahanztura geltoki abandonatua da ez dago
trenbiderik
Ezin hel naiteke zugana baina zutaz oroitzen naiz
Gauaren uremean oheratzen naizenean
Ez nau beldurtzen denbora azkengabeak galdera
ainguratuek
Urratsez urrats nongura dabilen joalea nauzu
Patioaren ertz batetik beste ertz batera
Liburu bat zabaltzen dudanean zutaz oroitzen naiz
Sentitzen zaitudanero nola ezagut zaitzaket
Bitartekaritzarik gabe maite nahi zaitut
Distantziak sortu lubaki honez gaindi bihotz hustuak
jendezta ditzagun
Bihotza deserria da orain
Itsasoak ez dakarren uhin bakoitza zure oinatz galdu
bat da
Minez oroitzen naiz eta zugana arribatu nahi dut

Zure begien esnatzerik bage lurmutur bage esnatzea da
Ortozik segitzen dut, zure ametsaren sabelera herriratu nahiz
Begiok ez ziren-eta mundu honetarako sortu izan
Dolamen zaizkit hitzaurre goroldiotuak, behako odolustuak
Bagara edo ez gara ala bagara eta ez gara
Urratsik gabeko bide ibiligabeak dira poemok udazkenez
Zuk desgaraiz ibil ditzazun eginak dira
Ezpainetan ahoskatu hitzarmenak dakarzkizut esku ahurrean banaka
Zure gorputzaren mapan abandonatu ditut eskuak eta orain
Orain ez dut zure taupada desabitatua aditzen
Gau egin da nire barnean
Izan ginela esanen dute batzuek, izan gabe izan ginela
Maite zaitut esan diezazuket mila bider maite zaitut
Goitizenezko ele txikietan

Baina ez
Izan gabe izan ginela esaten jarraituko dute
Gauaren oroitarrian aurki genitzake agian esan
gabeko musu galduak
Zure bularretan aitorrezinezko gogoeta bi utzi
nizkizun gordin
Oroit nazazun, doiets diezazkidazun hitzautsi
guztiak
Esku memoriadun betikoan dago biharra lerroetan
izkiriaturik
Zu zaitut behialako maite izanaren gotorleku
Elezahar baten arrasto
Erbeste urrunetik dator zure ahots biluztua
Eta gauaren hondarrean oin-has doa ene ihesa
Zure ezpainetako boza habitatzera

Ene begiak zure ausentziaz esnatu dira gaur ere

Zure libertatea amestu nahi dut
Orain zu maitatzeko froga-agiririk behar ez dudanean
Isilean maite zaitut abisu eman gabe
Gogo herrari honekin esku berridatziokin
Zuretzat gordeak ditut aditz imitaezin guztiak
Apiril eta irail oraindik sortugabeak
Handik nator eta harantz noa
Zuk eta nik dakigu bakarrik
Leku bat bilatu nahi dut zure biziaro bakoitzean
Nahi zaitut gauaren arartekotasunik gabe biluzik eta huts nagoenean
Lohiri desabitatua da tristezia hau
Eta buztinezko mina dut bihotzean
Zure ezpainak berretsiko nituzke behin eta berriz
Oilarite berriak ohereskatu nahi dizkizut oinuts zaitzaten
Nonahizaterik gabeak gara ordea gu
Eta ostertz honez haraindi zaude beti
Itxaroan
Beste zerurik baden galdetzen dut

Baden berriemailerik begi herriminduetan
Izan ginen behiala baina zure loa behar dut nirearen ondoan
Ene eskuak apatridak dira orain